

Artziniega, 2021eko apirilaren 7a

EAJ-PNVk "harridura handia" agertu du Artziniegako alkatea Sevillako Errege Kopako finalean izan dela egiaztatzean

Joan den larunbatean, apirilaren 3an, egin zen kirol-topaketa, eta, hainbat gizarte- eta komunikazio-kanalen bidez, Joseba Vivanco Andaluziako herrian zegoela egiaztatu ahal izan da, egoera soziosanitarioak autonomia-erkidegoen konfinamendua ezarri zuen arren

Joan den astean, larunbatean, Athletic Club eta Errealaren arteko Errege Kopako finala izan zen Sevillako La Cartuja estadioan. Oso espero zen kirol partida, baina euskal herritar gehien-gehienek ezin izan zuten bertara joan, agintari eskudunek ezarritako murrizketa soziosanitarioengatik, COVID-19ren hedapenari eusteko helburuarekin.

Hala ere, **EAJ-PNV Artziniega Udal Taldeak** hainbat bide erabili ditu **Joseba Vivanco** Artziniegako alkatearen bidaiaren eta egonaldiaren berri izateko, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta COVID-19ren hedapenari eusteko hartutako neurrien esparruan ezarritako mugikortasun-murrizketen indarreko aldian. (16/2021 Dekretua, martxoaren 26koa, Lehendakariarena).

Hori dela eta, **Encina Castresana** EAJ-PNVren Artziniegako bozeramaileak jakitera eman duenez, "Udal talde jeltzaletik egoera honen aurrean dugun harridura azaldu nahi dugu eta, gaur goizean bertan, Joseba Vivancok **Kontuen, Langileen, Barrioen eta Herrien Informazio Batzorde Berezia** premiaz deitzeko eskaera ofizialki erregistratu dugu udal idazkaritzan.

Horrela, alkateak agerraldia egitea espero da, herritar guztientzat ezarritako lurralde-itxitura perimetralaren balizko ez-betetzeen inguruko azalpenak emateko. Zergatik joan zara Sevillara konfinamendu autonomikoa hautsiz? Zer gisa edo zer justifikazio/baimen erabiliz mugitu zen?

Dedikazio eskusiboa

Era berean, EAJ-PNV kezkatzen duen beste gai bat da Vivanco alkateak arduraldi eskusiboa duela Artziniegako Udaleko arduradun politiko goren karguan aritzeko. Horregatik, harritzekoa da 2021eko apirilaren 4an, hau da, joan den igandean, erkidego mailako egunkari batean gutxienez argitalpen bat egin izana.

"Udal-taldetik galdetzen dugu zer harreman duen alkateak kazetaritza-argitalpena egin duen egunkariarekin eta, egunkariko sare sozialen arabera (Twitter), baita *"Sevillako giroaren"* estaldurarekin ere, finalean zehar, eta gertaera horrek ez ote duen zuzenean urratzen Artziniegako bizilagunekin hartutako konpromisoa, urteko 29.000 euroko ordainsari gordina duen lan-esklusibotasunaren bidez (Osoko bilkuraren erabakia, 2019/06/26koa)".